

MIKEL LABOA

SENTI, IKUS, BIZI

1974 — ABENDUAK, 20

Gaiezka egingo ote dugu? Oraingo honetan, orain artekoak ondu dituela uste dut. «Hori hor zio», esateko moduan gelditu da Mikel Laboa. Lan aparta gizon honek egin duena, Mikel, zu noiz zinen «azken»? Gaur egun ez behintzat.

Hiru diska handi eskaintzekotan genuen, baina bat, bere faltaz ez, atera gabe gelditu da. Ateratzen utziko al diote! Negargarria litzateke bestela. Bi diska ditugu beraz, eta biak izugarriak.

Aldi zahar-berri honetan, orain arte, gure artean horrelakorik ez da egin. Hau, patxadan, lasai diot gainera, Burua tente dugula inon eta inoren lotsarik gabe azaltzeko moduan gara. Lehen ere bai, baina, orain areago.

Diska hauen azalpena bera oso ederra da, ez nolana hiko horregatik. Dakitenen artisten lana da. Zumeta eta Arze ez dira broma.

Zumetaren obra ikaragarri eder batez daude jantzirik aurreko eta atzeko azalak. Pintura horri begiratu, irakurle, eta luzaz begiratu gainera, geroz eta gauza miresgarriagoak arkituko dizkiozuta. Ahal baduzu musika entzun ondoren begiratu pintura horri, eta berriro, musika entzutean, murgil zaitez obra horren ederrean berriro, musika eta pinturaren arteko lotura hertsia ikusiko duzu eta. Hobeto esateko, pinturak, olerkiak eta musikak bat egiten dute hemen. Kimikoki elkaturik balira bezala gorputz bat osatzen dute. Ez dakit baina, Zumetak egin duen pintura hori musika entzun ondoren egin duela apustu egingo nuke. Horregatik pintura hori ezin daiteke behar bezala ulertu besteekin batera aztertzen ez bada, formalismo hutsean erortzea litzateke bestela.

Azala bakarrik ez da ordea. Azalaren barru aldean, abestien hitzak daude, lan horretan trebea den Ja. Arzek moldaturik. Taxuz egina dago. Agian beteegi daudela esango nuke. Beste horri alde bat gehiago izan bazen, artistak askatasun gehiago izango zuen eta ziur aski, lan hobea egin ahal izango zuen. Baina gauzaren garestitasuna edo... beste arrazoiak...

Bestalde Mikel Laboaren bi disken esanahia azalen barru aldean dago, ere, egokienik adierazirik, nik hemen adieraziko dudan baino hobeto. Ja. Arzeri esker. Dena den, gure herria, gu nola bizi garen adierazten digute diska hauek. Elkar aditze, elkar ezagutze eta elkar osatze bat dira.

Txori batek kaiolaren murriztasunean kantatu dezakeen neurrian kantaturik hor dago gure herriaren bizitza. Bizitzaren alderdi gehienak bilduak eta osatuak azaltzen dira:

Bizitzaren morrontzapeko lanaren nekea, gainetik, beti, haika mutil ari zaizkigularik eta bizitza zertarako den jakitea eragozten digutelarik —Haika mutil; Ama hil zaigu.

Bakoitzaren sikologi arazoak, petsona arazoak: gure gogo eta gorputzaren zilbor-hesteen eten beharra bizi nahi badugu behintzat.

Herriaren festa giro zoragarria eta beharrezkoa, arnasa pixka bat hartzeko eta farre egiteko Xenpelarrek bezala «Pasaiko herritik».

Nahiz eta ohitura onen defentsaile faltso eta astazakil lapur paregabe, ai nere juaneteak esaten duen asko izan gure artean —Bedeinkatua; Nere juaneteak.

Gure arteko borrokak eta ezin ikusia eta traidore lotsagarria izatea —Bereterretxe khantoria.

Baita elkarren arteko eta maitearenganako erres-



petoa; ere, bakoitzaren nortasuna zainduaz. —Txoria txori; Oies Errondan dabil.

Gure ezin ikasia historian zehar, hartzeko jaiok nonbait —Arrano beltza.

Baina, horregatik, etsipenean erori gabe, ala, askatuko gaituela ustean, lasai eta ziur egongabe; Bereterretxeri gertatutakoa berriz ez dela gertatuko, erabakirik —Arrano Beltza.

Indar berriak ditugula pentsaturik, gizarte jator eta eder bat gure herri erraietan erroturik egingo dugula erabakirik ere —Baga, biga, higa; Gernika; Haika mutil.

Hori dena eta gehiago adierazten du Mikel Laboak bere disketan, Horregatik bere musikak gorputz guziri eragitea ez da harrizkoa. Sabela goriturik, zintzurra lehertuaz leize zulotik irtetzen duen oihu ozona eta xori erresinularen kantu ezta da Laboaren musika. Oihu hori, kantu hori, nahi duanarentzat ulerterraza da. Ulerterraza da herrian eta herriarekin bizi nahi duanarentzat; herriko arazoak bere egin nahi duanarentzat; bere barruan bizten dituanarentzat; «Bazan» izan nahi duanarentzat.

Sar eta murgil zaitez musika horretan eta indar berriturik aterako zara irakurle. Ez duzu behin ere damurik izango. Senti eta bizi gure herriaren hotsa. Kritika beste egun batez egingo da.

Oharra: «Zorionak» Herri Gogoari.

Lernko Argia